PROPOSAMENAK

Gauza batzuk gure esku egon arren, ezin dugu dena guk egin eta horretarako zuen laguntza ezinbestekoa da, beraz hemen gure proposamenak zuentzat.

Lehenengo ziklokoak udalari propOsatu nahi dizuegu:

- Bidegorri seguru bat egitea.
- Zebrabideak ongi margotzea.
- Seinaleak ikusgarri jartzea.

Bigarren ziklokoak proposatu nahi dizuegu:

- Etxezarreta eta Kale Txikin zabor ontzi txikiak jartzea.
- Bestalde, Kale Nagusiko kotxeen abiadurak kezka sortzen digute herritarrei eta haurrei. Zer egin daiteke?

Hirugarren ziklokoak proposatu nahi dizuegu:

- Bidegorri txukunak egitea.
- Segurtasuna bermatzea, herrian trafiko asko dabilela diotelako herritarrek.
- Aparkaleku gehiago jartzea herritarrentzat. (Neurriak hartzen ari omen zarete egoera hobetzeko.)

Gure aldetik, hau izan da ikasturte honetan egindako lanaren laburpena. Aurreko urtetan bezala, zuen erantzunaren zain gelditu gara. Datorren ikasturtean esku hartze fasean murgilduko gara eta ekimenak diseinatu eta martxan jarriko ditugu, herriko mugikortasuna hobetzeko eta orain artean ateratako ondorioei aurre egiteko asmoz.

Eskerrik asko zuen arretagatik eta nahi duzuen arte

MUGIKORTASUN JASANGARRIA

IRURAKO UDAL FOROA

2024 - 2025 ikasturtea

ESKOLAKO AGENDA 2030

EGINDAKO LANKETA

Egun on denoi! Iritsi da ikasturte amaiera eta urtero bezala, berriz bildu gara hemen, ikasturte honetan Eskolako Agenda 2030 proiektuan herri mailan egindako lanketa ezagutzera emateko. Aurtengoan, Garapen Jasangarrirako (GJH) 11. Helburua izan dugu abiapuntua, HIRI ETA KOMUNITATE IRAUNKORRAK eta gehiago zehazte arren, MUGIKORTASUN JASANGARRIA izan da Tolosaldeko ikastetxe guztietan landu dugun gaia.

Jarraian Irurako ikastolako ikasleok egindako lana azaldu nahi dizuegu. Haur Hezkuntzatik Lehen Hezkuntzarainoko 110ikasle inguru aritu gara mugikortasunaren gaia ikuspegi desberdinetatik aztertzen, eta noski irakasleen eta familiaren laguntza ere izan dugu.

Haur Hezkuntzako ikasleak, gaur ez dira etorri baina, beraiek gela barruan egin dute lanketa. Ikastolara nola joaten diren eta horren zergatiaz hitz egin dute. Garraio desberdinak ezagutzeko aukera ere izan dute eta bukatzeko ikasi dute ezagututako garraio horietatik batzuek beste batzuek baino ke gutxiago sortzen dutela eta osasuntsuagoak direla.



Lehen Hezkuntzako 1. ziklokoak eskolarako bidea aztertu dugu. Behin hori aztertuta oinez joateak dituen abantailak zerrendatu ditugu eta horretaz gain familiaren laguntzarekin etxean inkesta bat bete dugu gure ohiturak ezagutzeko.

Lanketa honetan ikusi dugu, guraso asko oinez joaten zirela eskolara, eta aldiz gaur egun asko kotxean joaten garela, nahiz eta pixkanaka oinez joaten hasten garen helduen laguntzarekin. Askori ikastolara bizikletaz edo patinetez joatea

gustatuko litzaiguke, baina bizikleta gehien bat aisirako bakarrik erabiltzen dugu. Eta azkenik, etxeko inkestan ikusi dugu etxe gehienetan kotxe bat edo bi ditugula eta asko erabiltzen ditugula, bereziki erosotasunagatik.

Bigarren ziklokoak kalera atera gara, behaketa lana egitea eta elementu fisikoak aztertzeaz gain herritarren jokabideak aztertu ditugu, oinezkoenak zein gidarienak. Ikusi dugu orokorrean, gure herriko kaleak txukunak daudela eta, nahiz eta oztopo batzuk egon zebrabide eta espaloien artean, gehienak bat egiten dute.

Gidarien jokabideak aztertzean ikusi dugu, herrian autoak azkarregi ibiltzen direla eta oinezkoen jokabideak gehienetan errespetatzen direla.

Hirugarren ziklokoak mugitzeko ohiturak aztertzeaz gain etxeko autoak ere aztertu ditugu.

Herritarren mugitzeko ohiturak ondo aztertzeko kalera atera gara galdetegi bat betetzera, eta gure etxeko autoak aztertzeko etxean bete dugu galdetegi bat.

Herritarren ohiturei dagokionez, ikusi dugu askotan garraio publikoa lantokietatik urruti geratzen zaiela eta horregatik kotxez joaten direla lanera. Horretaz gain,, ez dago ohiturarik bizikleta hartzeko. Eta gure etxeetan nahiz eta askotan erabiltzen den kotxea arrazoi desberdinengatik partekatzen saiatzen gara/dira 2-3 pertsona joanez elkarrekin. Garraio publikoa eta lantokiaren arteko lotura ona den kasuan, ikusi dugu batzuek nahiago dutela garraio publikoa erabili.

GURE KONPROMISOAK

Lanketa hau burutu ondoren eta bertatik ondorioak atera ondoren, ziklo bakoitzak bere konpromisoak hartu ditu eta udalari proposamen batzuk eskatzen dizkio.

Lehenengo ziklokoak konprometitzen gara:

- Semaforo eta zebrabideak errespetatzea, eta espaloietatik ibiltzea.
- Oinez, bizikleta edota patinetea gehiago erabiltzea.
- Seinaleak ikasi eta hauei kasu egitea.

Bigarren ziklokoak konprometitzen gara:

- Kaleak txukunak eta garbiak mantentzea, eta horretarako zabor ontziak erabiltzea.
- Araudia betetzea eta trafiko seinaleak errespetatzea.
- Elkar laguntzea.

Hirugarren ziklokoak konprometitzen gara:

- Ahal dugun guztietan motordun ibilgailurik ez erabiltzea eta erabiltzen dugunean besteak eramaten saiatzea.
- Garraio publikoa gehiago erabiltzea.